

Elias
Amezaga
Urlezaga

Idazle oparoa arlo askotan

(1921-2008)

BIDeGILEAK

Egilea:

Xabier Irujo Ametzaga



ELIAS AMEZAGA URLEZAGA

(1921-2008)

Hasierako bizipen gazi-gozoak

HAURTZAROA ETA GERRA-GARAIA

Bilboko Concha jeneralaren kalean jaio zen, 1921eko abuztuaren 9an, Elias Amezaga Urlezaga. Guraso aberatsen semea zen: Jose Maria Amezaga Agirre, 50 urtekoa, eta Emilia Clotilde Urlezaga Bilbao, 37 urtekoa. Seme bakarra, amaren aldetik Juan Crisostomo Arriaga Balzola Urlezaga konpositore bilbotarrarekin ahaidetuta zegoen Elias. Muxikakoak ziren jatorriz Urlezagatarrak, merkatariak, aduana-agentek, eta Bilboko burtsa-agentek ere bai. Errepublikarrak batzuk, euskal abertzaleak besteak.

Aita, Balmasedako alkate 1905eko abuztua eta abenduaren artean, elektrika baten jabea zen eta zenbait herritan lur sailak eta etxeak zituen. Primo de Riveraren diktadurako garaian Unión Patriótica alderdiko kide, begi onez ikusi zuen erregimena eta Balmasedako zinegotzi izan zen 1931 arte. Balmasedako eta Gueñesko tradizio luzeko familia bizkaitarraren ondorengoa ziren Gueñesko Amezagatarrak, Gaztelako koroari Enkarterrietan zerbitzu handiak egindako leinua alegia. Louis XIV.aren biloba zen Felipe V.aren alde borrokatu ziren Joseph eta Miguel Antonio Amezaga jeneralak Ondorengotza gerran (1701-1713) eta Carlos V.aren nahiz Car-


los VII.aren alde karlistadetan 1833an eta 1872an. Ondorengotza gerran borrokatu ziren zazpi jeneral Amezagaren artean batzuk hil ziren eta gainerakoek Arangurengo harlanduzko jauregia eraiki zuten bertan erregeari harrera egiteko, baina jauregia jasotzen ari zirela hil zen Felipe. Ondorioz, ez zuten etxea inoiz amaitu eta Sorginen Jauregia deitu zioten herritarrek. Amezagatarrek Balmasedan zuten etxean Carlos VII.ak gaua pasatu zuela esan ohi da eta, orduz geroztik ez zuela inork gela horretan lo egin.



Elias Amezaga, hilabete batzuk zituela

Elias mutiko bihurria izan zen. Bilboko Santiago Apostol ikastetxean hasi zuen lehen hezkuntza, baina bertatik bota egin zuten fraide bati gona altxatzeagatik. Cristian Eliasen semearen hitzetan, «ikaskide batekin apustu bat egin eta balentria burutu ondoren, umiliatutako fraideak hartu, eta astindu galanta eman zion. Marques del Puerto etxeko atarian agertzean, osaba Nikolas pilotariak Elias ikusi eta, zer gertatu zen jakin nahian, eskolara joan zen. Irakaslearekin topo egin bezain azkar muturrekoa eman zion eta, Basurtuko ospitalera eraman behar izan zuten fraide gizajoa». Bilboko institutuan ez zuen kurtso oso bat amaitu. Bertatik, bederatzi urterekin, Romanones ministroak ezarritako sei urteko batxilergoa Klaretianoek Castro Urdialesen zuten Barquin eskolan egitera bidali zuten gurasoek. Bost urte eman zituen han barneko ikasle gisa.

Bizikletazale eta futbolzale amorratua zen Elias. Hainbat garaikur irabazi zituen gaztetan, bai bizikletaren gainean zein eskolako futbol taldean eta, bederatzi urte zituela, Athletic-eko bazkide zen. Ohikoa zen garai hartan, jaunartzea egitean, aitabi-



Elias Amezaga 1930eko hamarkadan

txiak Athletic-eko bazkidetza jaunartzaileari oparitzea. Hala ere, Gainza zela eta ez zela, bazkietzari utzi zion urte batzuk geroago. Cristian Amezagaren hitzetan, «behin Elias bere lagun Benito del Vallerekin zelaira joan zenean, Gainza gaztea nahiko gaizki jokatzaren ari zela ikustean, txistu egin zioten. Beste batzuek, ordea, Gainzaren alde atera eta aurre egin zien, eta hortxe amaitu zen Eliasen San Mamesera joateko zaletasuna». Batxilergoko azken urtea egin behar zuela 1936ko altxamendua gertatu zen. Institu-

tuan Florencio Bustinza izan zuen irakasle, baina gobernu berriak baliogabetu zion titulua. 1934an ondasunak konfiskatu zizkion errepublikako gobernuak aitari. Amaren eraginez, haurra gerra garaian okupatuta izatearren, denda batean hasi zen Elias lan egiten. Garai hartan bera baino apur bat zaharragoak ziren zenbait lagun galdu zituen Eliasek, Bilbo inguruko borroketan erorita hain zuzen. Espartero kuartelean egon zen preso galtza motzetan Elias, «arriskutsua» zelakoan. Bigarren aldi batez Elcano kuartelean harrapatu zuen Ertzainak Elias, bonbardaketa batean aterpera ez joategatik. Bertatik Artebakarreko gainean lubakiak egitera bidali zuten behartuta mutikoa eta, ezetz esatean, berriz ere kuartelean sartu zuten. Amak bertatik atera arte.

Nazionalak 1937ko ekainean Bilbo hartzean hamasei urte zituen Eliasek. Bilbo okupatu zuten tertzio karlistetan sartzeko izena eman zuen mutilak. Oraingoan, bigarren karlistadako izenak zituzten tertzioetatik atera zuen semea aitak eta Castro Urdialesko eskolara bidali, bertan batxilergoa amai zezan.

GERRA OSTEKO LEHEN URTEAK ETA EZKONTZA

Hemezortzi urte zituela, 1939-40 ikasturtean merkataritza ikasten hasi zen Bilboko merkataritza-eskolan. Gurasoek Elias abokatu ingelesa izatea nahi zuten, familiak Bilbon zituen negozioetan lagun zezan. Horrela gauzak, jesuitek Deustuko Unibertsitateko atak berriz irekitzean, zuzenbide-ikasketei ekin zien Eliasek 1941ean. Deustun bi urte eman ondoren, Oviedoko zuzenbide-fakultatera joatea erabaki zuen, bere hitzetan «han azterketak aise gainditzeko modukoak baitziren». Eta hara jo zuen 1943ko urrian, bizi bateko Alfonso de Arrola lagunarekin.

Canela ezizena zeukan María del Carmen Asensio Bretones hogeita bi urteko aktorea amateurra ezagutu zuen Oviedon. Juan Ignacio Luca de Tenak idatzitako *Quién soy yo* amodiozko idazlan bat antzezten maitemindu ziren Canela eta Elias. Teatro-lan hartako protagonistak ziren biak: «harrituta ginen denok zein ongi antzezten zuten ikusita», esan ohi zuen Canelaren ahizpak. Canela Oviedoko erdialdean far-



Amezaga 1940ko hamarkadan

mazia bat zuen botikari baten alargunaren alaba zen. Xelebrekeria bada ere, 1916an, Canelak lau urte soil zituenean, José Fernández Asensio aitak farmazia erosi zion Rogelio Amézaga izeneko botikari bati. Argazkilari trebea, argazkiak errebeltzeko gela izan zuen Canelak etxean. Lan honetan agertzen diren argazki gehienak Canelak ateratakoak dira.



Elias, Carmen Asensio eta Petisa koinatarekin

Sarritan bi eta hiru gutun idazten zituenez egunean, ezkongai-aldia iraun zuen bi urteetan zehar berrehun bat eskutitz bidali zizkion Eliasek Canelari. Hogei bat aldiz bidaiatu zuen Eliasek Bilbotik Oviedora neskalaguna ikusteko, garai hartako hamalau orduko tren-bidaia aspergarria eginez. Montsenyko gainean, Katalunian, burutu zuen Eliasek soldaduska, «milicias

universitarias» delako lehen promozioan. Tabaran, Zamoran, egin zuen bigarren ikastaroa eta Oviedoko kuartelean osagarri teniente gisa soldaduska amaitzea eskatu zuen. Oviedon zegoelarik, *Hierro* egunkarian hasi zen idazten eta Mónaco kafetegiko berriketaldietan parte hartzen. Memorietan esaten duenaren harira, «bartzuei eta besteei entzun ondoren, alderdiz



Elias Amezaga eta Maria del Carmen Asensio 1946an,
euren ezkontza-egunean

aldatu nuen. Euskal sena piztu zitzaidan eta idazle gisa nire helburu nagusienetariko bat herriaren alde lan egitea zela ulertu nuen lehen aldiz».

1946ko martxoaren 19an ezkondu ziren Canela eta Elias Torrelavegan (Kantabrian) eta lau urte geroago lehen semea jaio zen. Bederatzi seme-alaba izango zituen biko-teak (Jose Mari, Mari Carmen, Patxi, Luis

Mari, Amaia, Cristian, Oskar, Aitor eta Juan Crisóstomo), hamasei biloba eta bost birbiloba. Bilboko Marqués del Puerto kalean urtetan bizi ondoren, 1966an Getxoko Andra Mari auzoko dorretxera aldatu ziren eta bertan iragango zituen Eliasek eta bere familiak ondorengo urte guztiak. «Dorretxeko idazlea» ezizenez, 1944tik aurrera Amezagak idazteari ekin zion bizi oso batez.



Elias Amezaga eta Carmen Asensioeren seme-alabak 1961ean. Eskuinetik ezkerrera: Juan Krisostomo, Aitor, Oskar, Cristian, Amaia, Luis Mari, Patxi, Carmina, ama Carmen, Jose Mari eta aita Elias

Hirurogeita sei liburutik gora kaleratu zituen Amezagak 1935 eta 2004 bitartean, gehienak berak argitaratuta, laurogeita lau ale guztira. Berrogeita bost nobela eta saiakera, hogeita bat antzezlan, hamaika antzezlanen itzulpen eta moldaketa, berrogeita hiru hitzaurre, eta ehunka artikulua, txosten eta ikerketa motz. Honetaz gain, hogeita hemezortzi liburutan kolaboratu zuen. Laurogeita hamargarren hamarkadan Alvaro Bermejo idazleari esan zion bezala, «berrogeita hamar bat liburu idatzi ditut jada. Hiru metro apal josi ditut liburuz eta ez dut hiru zentimetro apal be-

teko jaso ditudan aintzatespenekin. Horrelakoa da idazlearen bizitza».

Genero literario anitz landu zituen Amezagak, hots, antzerkia, eszenografia, kritika, saiakera, artikulua akademikoa, gutun-liburua, historia, happening, eleberria, fabula, olerkaritza, biografia eta kazetari-tza. «Orkestra literarioaren instrumentu guztiak jo zituen» esan ohi zuen Amezagari buruz Rafael Ossa Echaburuk.



Getxon, 1966an



Antzerkirako isuri joria

Elias Amezaga Madrilen, 1942 inguruan

GAZTETATIK ZETORKION ZALETASUN SENDOA

Antzezlanak idazten gauzatu zuen sormen literarioaren sena Elias Amezagak gaztaroan. Genero honetan eman zituen egileak bere lehen urratsak 1935ean eta 1955 arte antzerkia izango zen bere eginkizun nagusia.


1935an Aita Segoviak, klaretar apaiz «ubel eta mozkotea, baina kementsuak» antzerki-testu bat idaztera animatu zuen Elias. *Secreto de confesión* izan zuen lehen lan honek izenburutzat, Eliassen lehen argitalpena izango zena alegia. Artisau-lana izan zen hura. «Makina berria eta konposizio-kutxa erosi eta hitzez hitz liburu bilakatu

zen idazkia.» Azkar baino azkarrago, beste hiru antzezlan argitaratuko zituen jarraian hurrengo bi urtetan: *Cada loco con su tema* (1937), *Sangre y nieve* (1938) eta *Francisco de Borja* (1938).

Bilbon Junta de los Kostka antzerki-taldeko kide izan zen. Bilboko eta Bizkaiko katekesi taldeetako zenbait antzeztokitan gaztaroan idatzitako hainbat lan ezberdin aurkeztu zituen. *Arantza* idatzi zuen 1940an eta bi urte beranduago, 21 urte zituela, Zaragozan *Papa René* (1942) estreinatu zuen. Hilabete gutxi geroago 1938an idatzitako *Patalín, el feliz aventurero*, Eibarren eman zuen lehen aldiz. Leongo eta Asturiasko antzokietan beste bi lan estreinatu zituen arrakasta handia-

rekin, *Caminito de Belén* eta *Se nos fue*, drama (1945). 1944an Bilboko Arriaga antzokian eman zuen 1942an idatzitako *La Emperatriz Rosalinda*, drama lírico infantil, Arrola lagun handiari dedikatutako opereta. 1943an, hogeita bi urterekin, estatuko hainbat antzokitan zirkulatzen joan zen teatro-lana zeukala esan zezakeen Eliasek, eta Bogotá 30.000 pertsona obra hau ikustera joan zirela. *La Emperatriz Rosalinda*-ri beste antzezlan arrakastatsu batzuk jarraitu zizkioten: *El Príncipe pirata*, *escenas líricas* (1943), *Cuento japonés* (1945), *Redentor del mundo* (1947), eta *Los que no volvimos de la guerra* (1949). *Cuento japonés* Lolita Benavent eta María Fernanda de Ocón artista ospetsuek antzeztu zuten.

1944ko ekainean ikasketak amaituta eta bere lanen arrakasta zela eta, antzerkigile profesionala izan nahi zuela erabaki zuen. *Cristópolis: La ciudad del amor*. *La ciudad del odio* izenburu zuen heptalogia dramatiko izan zen fase honetako lehen lana. 1948an *Redentor del Mundo* drama estreinatu zuen Kanariar uharteetan José Tamayok 1946an sortutako Lope de Vega enpresaren eskutik. Garai hartan nabarmentzen



Algortan, 1966an

hasiak ziren izen handiko aktore eta aktoreak Tamayoren enpresan, hala nola, Maruchi Fresno, Asunción Balaguer, Carlos Lemos edota Alfonso Muñoz. Lope de Vega konpainiarekin lanean ezagutu zuen Amezagak Paco Rabal. Aurreko lanen harira, oso kritika ona izan zuen Madrilgo prentsan *Redentor del Mundo* dramaren estreinaldiak. Ondorioz, 1947an Hego Ameriketako hamasei herrialdetan estreinatu zuen Lope de Vega konpainiak hara eramandako beste hiru lanekin batera. Honi esker, *Sociedad de Autores* elkarteko



Amezaga Tomás Marco musikariarekin

«kide pribilegiatuaren» estatusa lortu zuen Amezagak.

Berak idatzitako teatro-lanez gain, garai hartako abangoardiako egileen obra ugari itzuli eta egokitu eta ezagutarazi zituen Madrilgo zenbait antzokitan. Literatura dramatikoa lantzeko joera zuela, Michel de Ghelderode, Bertold Brecht, Maurice Druon eta Arthur Adamov egileen lanen egokitzapenak landu zituen. Bertolt Brechten *Aquel que dijo sí*, *aquel que dijo no* itzuli zuen, Julien Graqcen *El rey pescador*, Maurice Druonen *Un viajero*, Arthur Adamoven *El profesor Tarana*. Jorge Oteizarekin batera Georg Büchner egile alemanaren *Dantons Tod* (*Dantonen Heriotza*) modernizatzen eta moldatzen saiatu zen Amezaga. Michel de Ghelderodek estatuan eta Hego Ameriketara bere antzezlan guztiak osorik itzultzeko baimena eman zion Amezagari, eta idazle belgiararren lanen itzulpena lantzeari ekin zion gozoz bilbotarrak. Haren lan guztiak itzuli eta



Mocedades taldeko Amaia Uranga Amezagarekin

horietatik hiru gazteleraz estreinatu ere egin zuen, hots, *Señorita Jairo*, *Escorial* eta *Escuela de bufones*. Itzulpen lan hauek amaitu ondoren eta, Ghelderode maisua izan zuela aitorturik, bide propioa bilatzen ahalegindu zen Elias, Ghelderode handiaren eraginetik urrun.

1951. urtean antzerki enpresa propioa sortzea erabaki zuen Amezagak Madrilgo Beatriz antzokian. *El inventor de la luna* aurkeztu zuen eta arrakasta gutxi izan zuen lanak. Ondorioz porrot egin zuen enpresa eta antzerki konpainia itxi behar izan zuen. Jorge Oteizak esan zion egileari orduan: «inoiz gehiago ez diezazutela buruarekin egin duzuna oinekin kritikatu». Gizartetik



Jorge Oteiza, Elias Amezaga eta beste lagun bat 1950eko hamarkadan

aldenduta, Bilbo eta Madril utzirik, mendi batera bizitzera joateko aholkatu zion artista oriotarrak, bertan idaztera bakarrik bizitza dedika zezan. Eta, hala egin zuen Amezagak. *Ilargi asmatzailearen* ondoren, bi lan argitara eman zituen bi urtetan, *Las tres Marietas* (1952) eta *Alberta* (1953).

Antzerki enpresaren porrotak eragindako hondamendi ekonomikoaren ondoren Urlezaga familiako aduana agentziaren kargu jarri zen, laburki, Elias. Hala ere, 1952an gertatutako aitaren heriotzaren ondoren, liburutegia eta antzezlanak idazteko toki bihurtu zen agentziako bulegoa. Bilboko burtsaz idazten hasi zen hiriko egunkarrietan, eta negozio-gutunak nahiz enpresa-txostenak egiten, baina era berean, etengabe jarraitu zuen bere produkzio dramatiko handitzen. Barroeta Aldamar

kaleko merkataritza-bulego honetan euskal gaiak lantzeari ekin zion Amezagak. Han hasi zen, adibidez, Lope Agirre Oñatiko marañoi famatuaren karakter polemikoa irudikatzen; gure lur honek eman duen abenturazalerik nagusienetakoa: soldadu menderakaitza, matxinoa eta aita, hainbeste maite zuen alaba inork hil baino lehen, bere eskuz akabatu zuena, «gaiztaginen koltxoia izan ez zedin».

TRANTSIZIO-ALDIA

1954an Amezaga bigarren fase batean murgildu zen, fase transitorioan alegia, Madrildik urrun, Bilbon bertan erroturik, antzerkigintza alternatibo eta esperimentalaren eskutik eta, ildo berean, euskal gaiak bere idazkietan lehen aldiz perspektiba etniko-kultural baten optikatik barneratuz. *Oñate* aldizkariko zuzendaria zen Iñaki Zumalderen eskutik ezagutu zuen Amezagak Jon Bilbao. Aldizkari honetan kanporatu zuen urte horretan bertan Eliasek Lope Agirreri buruzko lehen artikulua. Halaber, «Academia Errante» izenez



«Academia Errante» izeneko taldekide batzuk Arantzazun 1960ko hamarkadaren hasieran. Ezkerretik hasita: Angel Cruz Jaka, Luis Pedro Peña Santiago, Jose Antonio Aiestaran, José Joaquín Montoro, Iñaki Zumalde, Elias Amezaga, Javier Urkola, Sagues eta Luis Peña Basurto

ezaguna zen garai hartako intelektual gel-
diezin lagun talde batekin identifikatu zen.

Jon Bilbaoren hitzetan, urte biziak izan-
go ziren horiek Amezagarentzat. Alfonso
de Arrola, Luis Benito del Valle, Eduardo
Estrade, Luis Mari Retolaza, Ignacio Irala,
Jose Antonio Gaminde edota Jose Ramon
Marcoartu, Eliasen lagunak, muskideek
eta tertulianoek, Euskal Herriko etorkizun
politikoaren inguruko kontzepzio arras
ezberdinak zituztenek, eragina izan zuten
Amezagaren trantsizioan. Luis Benito del
Vallek, bere amaigabeko errebeldiatik
espetsxean egondakoa, Eduardo Estradek,

bere iritzi orekatuekin, eta Koldo Reto-
lazak, Eusko Alderdi Jeltzaleko tradizio
nazionalistarekin, hirurogei hamarkadako
Amezaga berria garatzen lagundu zuten
Bilboko Mónaco kafetegiko tertulietan.
Munichera eta Parisera Jon Bilbaorekin
egindako bidaia batean aurkeztu zizkion
azken honek Jose Antonio Agirre lehen-
dakaria eta Alberto Onaindia kalonjea.
Urte batzuk geroago, Onaindiaren lan
osoen hitzaurrea egingo zuen Amezagak.
Euskal sena nahi zuen Amezagak araka-
tu, euskal herrien esentzia aurkitu. Jon
Bilbaoren hitzetan, Muñatones leinuko
Lope Garcia de Salazarren irudira, do-
rrea jaso zuen Amezagak ere. Bere lagun
Jorgeren aholkuari jarraituz, Madariaga
eta Gallastegi (Elias Gallastegiren semea)
arkitektoek Getxoko Andra Marin dorre-
txea eraiki zuten 1969. urtean, inguruko
hainbat ibarren gaineratik, itsasotik hurbil,
inspirazioaren bila eta inspirazioa susper-
tu nahian, bertako ingurumenaren bakean
murgildurik. Harrezkero, ekainaren lehen
hamabostaldian hartuko zituen soilik opo-
rarak, urtez urte familiarekin bi astez Gan-
diara joateko.



Elias Amezaga (ezker aldean) eta Jon Bilbao (eskuin aldean), besteren artean, Munich-en 1960ko hamarkadaren hasieran izandako bilkura politikoetan

1970. hamarkadako lehen urteetan antzerkia idazteko modu berriak ikertzen hasi zen Amezaga. Produktua, abangoardiako antzerki-lanak, txikidramak eta happeninga. Ildo honetan egindako ahaleginek isla nabarmena izan zuten bere zenbait obratan, hala nola, *El hereje* (1970) izenekoan. Antzezlan honetan egilea bere urteetako trebetasunaren eta ezagutzaren gailurra jo zuen. Antzerkigintza esperimental berritzailearen forma «happeninga» dugu, Amezagaren hitzetan «esperimentuetan egilea “gertatzen” baita», izan ere, beste bati buruz idatzi ahal izateko egileak aldeztatik bere errealtatetik ere atera behar baitu. Gogoaren zati propio bati uko egin eta idazten hasi baino



Elias 1960ko hamarkadan

lehen hiru aldiz arnegatu behar, nor bere burutik zerbait eman ahal izateko. Eta ildo honetan idatzi eta argitara eman zituen *Teatro* (1970), *Con piedras* (1972), *Homo* (1973) eta *Happening. Exploración* (1973). Teatro lau antzezlan ezberdin dakartzan tetralogia bat da: *Die blonde Bestie*, *El Hacha*, *Stienz* eta *Espantajos*.


Eso (1971) izenburuko lanarekin kaleratu zuen lehen *txikidrama* gure egileak. Elkarrizketaren dinamikaren bertutez eta gai-multzo baten aldakuntza borobilduz, indarkeriaren gai jakin baten inguruko zazpi elkarrizketa ezberdin jorratu zituen eszenatoki berean. Haurrentzako teatroa eta antzerki independentea ere landu zuen Amezagak hirurogeita hamargarren hamarkadaren hasieran. Frankismoaren azken urteetan *Los Cátaros* izeneko an-



Carmen Asensio eta Elias Amezaga Algortako
Andikoetxean 1963an

tzerki talde alternatiboak egileak hogeita hamabi urte zituenean idatzitako *Espan-tajos* (1953) obra taularatu zuen 1970ean. Horrela, idatzi eta hainbat urte geroago estreinatu zen lan hau, Asturiasko kultur etxe txiki bateko antzeztokian, unibertsitateko konpainia batek antolatuta, Amezaga jada antzerkigile sendo eta bikaina zenean. Era berean hirurogeita hamargarren hamarkadaren hasieran ikusi zuen Amezagak aspaldi idatzitako beste hainbat lan teatrotan, hauen artean *Los que no volvimos del frente*, *Alberta* eta *Cuento japonés*. La Cadena Azul de Radiodifusión (CAR) irrati-kateak Bilboko Arriaga antzokian aspaldi batean estreinatutako *La Emperatriz Rosalinda* eman zuen. Era berean, Espainiako telebistak Amezagak Chopin eta Van Gogh-i

buruz egindako narrazio biografikoak egokitu eta zabaldu zituen 1976 eta 1977 urteen artean. Beste hainbeste egin zuen Radio Nacional-ek *El Proceso de María Estuardo* narrazio biografikoaren irrati-ber-tσιοarekin. 1978. urtean Puerto Rico-ko Ponce unibertsitateko antzerki taldeak *El hereje* eszenaratu zuen, Amezagak inkisizioaren gainean aurretik idatzitako lana. *Los pecados se hacen de dos en dos* (1954) antzezlanean zalantzaren gaia jorratu zuen Amezagak, jeloskortasuna eta tortura, haserrea eta etsipena, bikote zaharrak eta euren kexak, delitua eta alkoholaren arazoa. 1987ko abenduan *Arbola* aldizkarian argitara emandako *Reflexión dramática sobre un gran hombre* dugu Amezagaren azken teatro-lanetariko bat. Gerora *Un prólogo y seis obras dramáticas* (2004) kaleratu zuen soilik. Pedro Barea antzerki kritikariak aipatutako azken lan honen hitzaurrean adierazi zuen bezala, antzerkigintzaren inguruko hausnarketari buruzko drama bat da hau, antzerki komertzialean irudikatzen ziren ereduetatik urrun. Elias *outsider* bat zen orduan gaztelaniaz idatzitako Euskal Herriko antzerkigintzan, ezaguna Madrilen eta guztiz ezezaguna



Yo, demonio, Lope Agirrerri buruzko antzerki-lan eta kronika bitxia

Bilbon, bere herrikideen eta hurbilekoen artean. Amezagaren lanak apenas estreinatuta izan dira Euskal Herrian. Denetarik idatzi zuen: irakurtzeko antzerkia, antzerki esperimentala, antzerki txikia...

Antzerkigintza biografikoak erakarri zuen beti egile bizkaitarra. Gai eta pertsonaia polemikoak bilatu zituen beti, Lope Agirre eta George Sand bezalakoak. Lehenengoa protagonistatzat hartuta, *Andanzas y naveganzas del fuerte caudillo de los invencibles marañones* idatzi zuen 1951 eta 1952 artean. 1953an Espainiako zentsurak debekatu egin



Lope de Aguirre descuartizado, «Academia Errante» taldekoek burututako lanean parte hartu zuen Eliasek

zuen, baina hiru edizio ezagutu zuen lanak gerora, hots, Bilbon 1957an, Amezagak berak kaleratutakoa, eta beste bi 1977an, Habanakoa eta Donostiakoa, *Yo, demonio: Andanzas y naveganzas de Lope de Aguirre* izenburupean. Pertsonaia latz honen eta Amerikako konkistaren inguruan dihardu Amezagak bere kronika dramatikoan, bai eta heroï oñatiarrari jarraitu zioten marañoiei buruz ere. Antzerki hau taxutu eta urte batzuk geroago *Lope de Aguirre descuartizado* (1963) izenburu duen elkarlanean kolaboratu zuen egileak.



Ekarpen garrantzitsuak beste alor literario batzuetan

Elias Lisboan 1970 aldera

NARRATIBA SAILEAN EGINDAKO AHALEGINAK

Memorias de un autor desconocido izan zen Amezagak argitaratu zuen lehen narrazioa. *La Voz de Oviedo* egunkarian atera zen, foiletoi gisa, 1944 eta 1945 artean. Handik aurrerako libururik gehienak, eta ez dira gutxi, Bilbon argitaratuko ditu. Algortan ere bai banaka batzuk.

Katoliko praktikantea izanik, fedea oso presente dago Amezagaren produkzio literarioan, batez ere hirurogeiko hamarkadaren hasierako trantsizio-lanetan, hala nola, *Morir, ¡Qué tentación!* (1963), *Sona-*

ta fúnebre (1963) edo *Consejos a un recién muerto* (1966). Parisko 1968ko maiatzaren ekitaldiak gertutik jarraitu zituela, bakea eta iraultzaren arteko kontradikzioa landu zuen *Et après? Aux barricades* (1969) izenburuko lanean. Euskal Herrian eragina izandako hainbat kontu larri jorratu zituen lan honetan, hots, iraultza, bake eta demokraziaren beharra. Gai honen inguruan Amezagak idatzitako lehen obra honetan armadari egindako kritikagatik idazkia zentsuratu eta lanaren dibulgazioa debekatu zuen Tribunal de Orden Publikoak.



E. Amezaga Cristian semearekin, Jose Luis Merino kazetariarekin eta Jose Angel Iribar futbol-atezainarekin 1969an Getxon

Cómo se hace un rey Bilbon 1973an aurkeztu ondoren, biografiari ekin zion Amezagak, antzerkigintzatik gero eta gehiago urrunduz eta bere lan sortzailearen hirugarren fase batean sartuz 1975etik aurrera.

Esan bezala, gai eta pertsonaia gatazkatsuak landu zituen Amezagak gehien bat, hauen artean George Sand, idatzitako lanak argitara ahal izateko gizonezkoaren izena hartu zuen emakumezkoa alegia. Bost lan burutuko zituen egile frantsesaren inguruan, hau da, hiru eleberri, azken honen idazkietan, korrespondentzian eta bizitzan

inspiratutako pieza dramatiko bat (*Jorge Sand, íntima*, 1965) eta hiztegi ideologiko bat. Halaber, beste zenbait pertsonaiaren biografiak landu zituen 1959tik 1969ra: Maria Estuardo erregin eskoziarrarena (*El proceso de María Estuardo*, 1959), Vincent van Goghena (*Van Gogh y el más allá*, 1959; berriz ere 1989an argitaratuko zena), Papa Luna ezizenez ezaguna den Benedicto XIII. aita santua izan nahi zuenarena (*Del cisma*, 1962), Frédéric Chopinena (*Sonata fúnebre*, 1963), Enrike IV. Nafarroako eta Frantziako erregearena (*Enrique Quarto*, 1974),



Gorka txakurrarekin eta Buguni tximuarekin

eta Girolamo Savonarolarena (*Peñíscola y Savonarola*, 1975). Era berean, fedea eta in-
kiszioaren inguruko bi lan emango zituen
argitara hirurogeigarren hamarkadaren
amaieran, *Auto de fe en Valladolid* (1967)
eta *Guía del perfecto inquisidor* (1968).

1954tik aurrera Amezagaren aber-
tzaletasuna nabaria bada ere, Lope Agi-
reren inguruko lanaren bidez sartu zituen
euskal gaiak, apurka-apurka, bere krazio
literarioaren unibertsoan. Foruen eskutik
jo zuen 1976an *Mil años con fueros... cien*

sin Bilbon argitaratu zuenean eta *Bilbo, gure
Bilbo handia* 1988an atera zuenean (*Bilbao,
nuestro gran Bilbao*, 1988). Bata zein bestea
pieza biografikoak dira funtsean, euskal kul-
turaren bi elementu hauek pertsonaia bizi
gisa tratatu baitzituen egileak.

EUSKAL HERRIKO IDAZLEEI BURUZKO BIBLIOGRAFIA ABERATSA

Hirurogeita hamargarren hamarraldiaren
amaieran hasi zen euskal gaietan guztiz
murgiltzen eta antzerkigintza alde batera
uzten biografiak lantzeko. Jon Bilbaok
berak jakinarazi zion Eliasi *Eusko Biblio-
graphia* burutzeko zuen asmoa. Gertutik
jarraitu zuen egileak 1970eko udan *Eusko
Bibliographia* erraldoiaren lehen liburu-
kiaren argitalpena eta horrek eman zion
behar adinako bultzada *Los vascos que
escribieron en castellano* lanari ekiteko.
Jon Bilbaok bibliografian zentratu bazuen
bere ikerketa, Amezagak berea egileetan,
biografietan hain zuzen, oinarrituko zuen.
Zazpi bat urtez egon zen Amezaga Euskal
Herriko lau hiriburuetan, Parisko, Madri-




Jon Bilbao eta Elias Amezaga 1967an

leko, Londresko, Sevillako, Salamancako eta Europako zenbait hiritako agiritegitan zehar informazioa arakatzen. 1977an argitara eman zuen lehen alea eta, hamasei urte geroago, 1993an laugarren eta azken alea: *Los vascos que escribieron en castellano*, alegia.

Eta aipatu berri den lan horrek susperturik-edo, ekin zion Amezagak bere bizitzako lan zabalenera eta garrantzitsuenekoari: *Autores vascos* deritzona, hain zuzen ere. Idazle bizkaitarraren maisu-lana kontsideratzen da. Euskal egileen erregistro oparoa da, egile

bakoitzaren zenbait datu aipatuz, alegia, biografia, idazkiak eta lanaren zein egilearen erreferentziak. Guztira 12.000 autore eta 200.000 lan dakartza bildumak. Hogeita hamar urte baino gehiago inbertitu zituen Amezagak lan honetan. Hainbat biblioteka eta artxibo aztertu zuen, euskal hiriburuetako diputazioen liburutegiak zein Iparraldekoak, eta Espainiako eta Frantziako beste zenbait. Lana hamar liburukitan kaleratu zen 1984 eta 1996 urteen artean, egileak berak egindako edizioan.



Autores vascos sortaren hirugarren liburukia, 1988

EUSKAL BIOGRAFIAK

Euskal Herriko aro garaikideko historia-
ren hiru funtsezko pertsonaiez ere idatzi
zuen Eliasek. Bere hiru herrikideri buruz:
Sabino Arana izan zen lehenengoa. Hiru
liburu moldatu zituen Aranaren biografia,
pentsamendua eta lanak adierazteko: *Sabin*
(1995), *Biografía sentimental de Sabino Ara-*
na (2001) eta *Sin Sabin* izeneko antzezlan-
a (2003). Jose Antonio Agirre da bigarren
pertsonaia. «Gerra egin behar izan zuen
bake-gizona» pertsonalki ezagutu zuen
Amezagak Parisen Jon Bilbaoren bitartez.
Agirrereren azterketa psikologiko, ideolo-
giko eta politikoa taxutzen ahalegindu zen
Amezaga, lau bolumenetako biografia mo-
numentalean, *El primer Aguirre o el artífice*
del Estatuto (1988) izenburu orokorrare-
kin. Bosgarren ale bat ere kaleratuko zuen
Amezagak *Lehendakari Aguirre: una vida*
al servicio de su pueblo (1990) eta, geroago,
azken liburu bat, *Con José Antonio* (2004),
lehendakariaren jaiotzaren mendeurrena
gogorarazten. Euskal Herriko aro garai-
kideko historiako hirukotea osatzen duen
beste pertsonaia Miguel Unamuno da.

Ez zion Amezagak Unamunori Aranari
edo Agirreri eskaini zizkien lan sakonak
dedikatu, baina pentsalariaren inguruko
gogoetak egin zituen *Reflexión dramática*
en torno a un ilustre moribundo (1986) eta
Ficha bio-bibliográfica de Miguel de Una-
muno (1992) deituriko liburuetan. Eta
lan biografiko hauen epilogo gisa 1989an
argitara eman zuen Amezagak *Euzkadi: al*
cruce de tres culturas (Bilbao, 1989), Euskal
Herriko gatazka kultural eta politikoaren
ingurukoa.



Eskuinetik ezkerrera Elias Amezaga, Federico Krutwig eta beste lagun bat
Getxoko dorretxean

Aipatutako pertsonaiez gain, beste hamaika autore landu zituen Amezagak, hauen artean egileak pertsonalki ezagutu edo tratatu zituenak, hala nola, Jose Olivares Larrondo *Tellagorri*, Justo Garate, Bingen Ametzaga, Jon Bilbao eta Jorge Oteiza (Amezagaren hitzetan «ezinbestekoa euskal herritar guztientzat»). Oteizaren *Ahora tengo que irme* (2003) antologia Amezagak prestatu ez ezik, hitzaurrea ere idatzi zion. Hauekin batera Tomas Meaberen eta Esteban Calle Iturrinoren biografiak burutu zituen bai eta *Entrevistas imposibles* izenburupean, Lope Agirre, Katalina Erauso, Jose Artetxe eta Jose M^a Murga Mugartegiren elkarrizketatutako biografiak ere. Gainera, bere buruaren eta *alter ego*aren arteko elkarrizketa moduan, 2003an argitaratu eman zuen autobiografia: *Conmigo. Un cacho de mi vida* (2003).

Eta biografia zerrenda luze hau prentsan eta aldizkarietan utzitako hamaika zirriborro biografikorekin osatu zuen egileak: Juan Crisostomo Arriaga, Ramon Basterra, Dolores Ibarruri, Joxe Mari Iparragirre, Loiolako Inazio deuna, Maximilien Robespierre, Luis Ruiz de Agirre (Sancho de



Elias Ametzaga Jorge Oteizarekin eta German Yankerekin, 1995 inguruan

Beurko), Jose Maria Salaberria, Luis Martín Santos, Antonio Trueba, Juan Antonio Zunzunegi, eta beste hainbat euskal egile.

Bere omenean Real Sociedad Bascongada de Amigos del País erakundeko Bizkaiko batzordeak, 1996an egindako ekitaldian, bazkide emeritu izendatu zuen Elias Ametzaga, «euskal egileei buruz inork baino gehiago idazteagatik». Cristian Ametzaga egilearen semearen hitzetan, «*Autores vascos* bilduma burutu eta argitaratu ematea izan zen bere bizitzako helbururik garrantzitsuenetarikoen arteko bat, nahiz eta ezin izan zuen berak nahi zuen bezala lana CD Rom batean argitaratuta ikusi». Izan ere,



Elias Amezagaren familia Getxoko dorretxean bazkaltzen. Eskuinetik ezkerrera: Amaia, Luis Mari, Patxi, Oskar, Juan Krisostomo, Aitor, Cristian, Elias eta Mari Karmen, 1975 inguruan

Amezaga dugu web-orri bat izan zuen lehenetariko euskal idazlea (www.eliasamezaga.com).

2002 eta 2004 bitartean, bost liburu gehiago argitara emango zituen Amezagak: *50 escritores vascos y un editor*; *Ahora tengo que irme*; *Un prólogo y seis obras dramáticas*; *El hacedor de vírgenes* eta euskal ezizenen liburuxka edo hiztegitxoa.

KAZETARITZA-LANAK

Oviedon hasi zen prentsa-artikuluak idazten 1944an, elkarrizketak eta antzerki jarduerari lotutako artikuluak hain zuzen, *La Voz de Asturias* egunkarian. Bilbora itzulita, *Hierro* agerkarirako antzerki-kritikak moldatu zituen berrogeita hamar garren hamarkadan.

Prentsa-artikuluak baino gehiago kazetaritza-saiakera dei daitekeen generoa landu zuen. Mario Marrodanek esan bezala, «made-in-Amezaga» artikulu bat idazteko adierazkortasunaren, zorrozatasunaren eta modernismo klasikoaren espiritua behar da izan. Amezagaren artikuluak azalpen biografiko, artistiko, historiko eta literarioak eztabaidatzeko zirriborroak dira.

1977an, bere lan sortzailearen hirugarren fasearen hastapenean, ekin zion masiboki prentsan argitaratzeari. *Deian* batik bat, non 1977 eta 1990 bitartean maiz kolaboratu baitzuen. *Deiaz* gain, hainbat eta hainbat egunkari eta agerkaritan aurki ditzakegu Amezagaren artikuluak, besteak beste, *Diario 16*, *Diario de Noticias*, *Egin*, *El Correo Español-El Pueblo Vasco*, *El Dia-*



Getxon adiskide eta solaskideekin 1985 aldera: Jose Luis Merino kazetaria, Jose Manuel Alonso kazetaria, Bonifacio Alfonso margolaria, Mari Carmen Flores aurrekoaren laguna, eta Jose Luis Blanco kazetaria

rio Vasco, El Mundo del País Vasco, El Periódico de Álava, Gara, Hoja del Lunes de Bilbao eta *La Gaceta del Norte*. Halaber, zenbait aldizkaritan azaldu ziren bere lanak: *Arbola, Boletín del Instituto Sancho el Sabio, Euzkadi, Muga, Historia Contemporánea, Kultura, Letras de Deusto, Pégola, Revista Internacional de los Estudios Vascos* eta abarretan.

Oso gai ezberdinak landu zituen: politika, zientzia, gizarte, hizkuntza, artea, mitoak, tradizioak, foruak, historia eta istorioak,

emigrazioa eta, ezinbestez, biografiak eta bio-bibliografiak.

Seguruenik, mila artikulutik gora. Horietako batzuk bere prentsa-artikuluen antologian argitara eman zituen *Amada Prensa* tituluarekin 1996an.

OMENALDIAK

«La Gaviota de Oro» saria jaso zuen 1989an. Arestian esan bezala, Real Sociedad Bascongada de Amigos del País



Mari Carmen Asensio eta Elias Amezaga Getxoko etxean, 2000 inguruan

erakundeko Bizkaiko batzordeak bazkide emeritu izendatu zuen Elias Amezaga eta, urte bat geroago Bilboko udalak bere bizitza eta bere lanaren erakusketa antolatu zuen Bidebarrieta Kulturgunean. 2001ean, Carmelo Bernaola eta Ángel Ortiz Alfau- rekin batera, omenaldi bat eskaini zitzaion Bilboko udaletxeko arabiar aretoan. Alfonso Sastre eta Elias Amezagaren antzerkigintza goraiatu zuen Sociedad General de



Elias Getxon 2005ean

Autores y Editores erakundeak 2003an Donostian antolatutako omenaldian. Azkenik, Eusko Ikaskuntzak Manuel Lekuona saria eskaini zion 2006ko martxoaren 10ean.

2001eko irailean hil zen Mari Carmen, emaztea. Hirurogei urte egin zuten elkarrekin. 2004an, miastenez jota, heriotza gertu sentitzen zuen Amezagak. Getxon hil zen, 2008ko apirilaren 13an.

Egileak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko eskaini duten informazio eta laguntzagaririk, eskerrak eman nahi dizkiete:

- Arantzazu Ametzagari
- Cristian Amezagari
- Patxi Amezagari
- Alfonso Arrolari
- Azkue Bibliotekako langileei
- Jon Bagues Erriondori
- Ander Irizar Apaolaza lankideari
- Mark Lucasi
- Juan San Martín argazkilariari

Zuzendaritza: Jerardo Elortza
Argitaraldia: 1.a, 2013ko abenduan
Ale-kopurua: 2.300
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria: Edorta Sanz
Fotokonposizioa: SACAL • Barratxi, 2 (Pol. Ind. Gamarra-Betoño) - 01013 Vitoria-Gasteiz
Inprimaketa: SACAL • Barratxi, 2 (Pol. Ind. Gamarra-Betoño) - 01013 Vitoria-Gasteiz
ISBN: 978-84-457-3320-2 (Lan osoarena)
978-84-457-3324-0
L.G.: VI 858/2013



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA